

BEZERO KANALAK

Bezero kanalak enpresek eta bezeroak elkarrekin komunikatzeko eta harremana mantentzeko erabiltzen duten baliabideak dira. Kanal horien bidez, gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutaraziko ditugu eta beharrezko informazioa emango dugu; aldi berean, bezeroek zalantzak argitu edo gure zerbitzuak kontratatzeko aukera dute.

Bezeroekin komunikatzeko hainbat bide eman daitezke. Batetik, komunikazio zuzenekoak erabili daitezke:

- Aurrez aurre
- Telefono bidez
- Bideo-deien bitartez

Bestalde, zeharkako komunikazioa oso ohikoa da gaur egun:

- Sare sozialak
- Webgunea
- Posta-elektronikoa

Guzti hauek bezero-kopuru handi batera iristeko eta informazioa modu argian banatzeko oso lagungarriak dira. Garrantzitsua da komunikazioa argia, errespetuzkoa eta etengabea izatea, bezeroaren konfiantza lortzeko.

Horretarako, hainbat bide eman daitezke bezeroekin harremanetan egoteko.



Telefonoa oso erabilgarria da arreta pertsonalizatua eta azkarra eskaintzeko.



Posta elektronikoa informazioa, eskaintzak eta fakturak bidaltzeko kanala izan daiteke.



Webgunea bezeroentzat informazio iturri nagusia da eta, gainera, online erosketak egiteko aukera eman dezake.



 Sare sozialen bidez, (Instagram, Facebook, Tiktok...), promozioak iragarki gisa emateko erabilgarriak dira. Komunitate bat sortu daiteke eta aldi berean, informazioa oso arina izango da bezeroentzat, bideo edo argazki moduengatik.



Denda fisikoaren bidez bezeroekin harreman pertsonala eta esperientzia zuzena eskaintzeko modurik eraginkorrena da.